



IBARRAKO UDALAREN ETA GIMNASIA ERRITMIKOKO BELABIETA KIROL KLUBAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA.

Ibarrako udaletxean, 2024ko abenduaren 11

ELKARTURIK

Alde batetik, Igor Zapirain Lizarribar, Ibarrako Udaleko Alkate-Lehendakaria, Ibarrako Udaleko Idazkaria den Eider Esnaola Carrera lagunduta.

Eta bestetik, Laura Navascues Angulo andrea, 44171175C NAN zenbakiduna, gimnasia erritmikoko Belabieta kirol klubeko lege ordezkaria. Elkartearen egoitza soziala: Ibarrako San Bartolome, 21 behean, IFK: G20582805.

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenengoak, Ibarrako Udalaren izenean eta ordezkaritzan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.f) artikulua xedaturikoaren arabera.

Bigarrenak, Belabieta Kirol Klubaren izenean eta ordezkaritzan, lehendakari gisa, 2018ko otsailaren 27ko Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariak bere ebazpenean jasotakoaren arabera.

Bi aldeek Hitzarmen hau egiteko behar adinako legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta ondorio horretarako

AZALDU DUTE

I- Gimnasia Erritmikoa Belabieta Kirol Klubak 2024ko azaroaren 15ean Udal honetan aurkeztutako idatziaren bidez (2024/3281 erregistro zk), dirulaguntza proiektuen eta jardueren memoria aurkeztu zuela, Ibarrako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra xedatutakoarekin bat etorritik. Memoria honek **50.000 euroko aurrekontua du**

II- IBARRAKO UDALAK beharrezkotzat jotzen du udal kirol zerbitzuen kalitatea etengabe hobetzea, bai eta zeregin horretan herriko klub eta elkarteak garatzea eta inplikatzeko ere.

III- Gimnasia Erritmikoa Belabieta Kirol Klubak, nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna izanik, irabazi-asmorik gabekoa dela, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Autonomikoan inskribatuta dagoela (CD 0002415 inskripzio-zenbakia), **Gimnasia Erritmikoa kirol modalitatearen praktikarako eta sustapenerako, besteen artean.**



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA



IV- BI ALDEEK komenigarritzat jotzen dute hitzarmen hau sinatzea honako arrazoiengatik:

- Herrian dagoen gimnasia erritmikoko eta balleteko klub bakarra delako.
- Herriko haur eta gazteen artean jarduera fisikoaren praktika sustatzen duelako
- Edozein dela hasteko adina, herrian bertan gustuko kirola egiteko aukera ematen dietelako
- Kirol-ibilbide osoa egiteko aukera eskaintzen duelako praktika honetan hasten direnentzat
- Genero desberdintasunik gabe parte-hartzera bultzatzen dutelako
- Herritarren artean zaletasuna sustatzen duelako.
- Haur eta gazteen artean eremu ez-formaletan euskararen erabilera normalizatzen duelako

V- Araubide Juridikoak

Kirola eta Jarduera Fisikoari buruzkoak

- 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 25.2ko artikuluan L atalean " *Kirola, kirol-instalazioak eta aisialdirako instalazioak sustatzea*" dago eskumen - propioen artean
- 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 17.1.19) artikuluan xedatutakoa: *Kirola eta kirol-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kirol-ekipamenduak kudeatzea*
- Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolaren 2/2023 martxoaren 30eko Legea
- 125/2008 Dekretua, uztailaren 1koa. Eskola Kirolari buruzkoa
- Haurrak eta Nerabeak Indarkeriaren Aurrean oso-osoko Babesari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoa, IX. kapituluak, eta Haur eta Nerabeen otsailaren 15eko 2/2024 Euskal Legea, VIII. kapituluak 73. artikulutik 77.era bitartekoetan
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik Gabe Bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUAK 3.1 artikulua

Izendunak diren dirulaguntzari buruzkoak

- Urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikorenak, 47 - 53 garren artikulua
- 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak
- 38/2003 Legeak, diru laguntzen lege orokorrak, 22.2.a) eta 28.3. artikuluetan
- 1955eko ekainaren 17ko Dekretua, Toki Korporazioen Zerbitzuen Erregelamendua onartzen duena
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21koa, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena
- Ibarra udaleko dirulaguntzen orokorreko ordenantza (GAO, 2013-06-07, 108 zk)
- Ibarra Udaren 2024-2027 dirulaguntzen plan estrategikoa (GAO, 76. zk., 2024ko apirilaren 19koa)

Bestalde, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren (DLO) 5. Artikuluan xedatutakoaren arabera, lege honek eta hura garatzeko xedapenak arautuko dituzte



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA



administrazio-zuzenbideko gainerako arauak, eta, halakorik ezean, zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko dira.

VI- Gimnasia Erritmikoa Belabieta Kirol Klubak ez dagoela 38/2003 Legeak, azaroaren 7koak, Dirulaguntzei buruzkoak, bere 13. artikuluko 2. eta 3. zatietan dirulaguntzak jasotzeko adierazitako debeku-ausaren baten pean.

VII - Gimnasia Erritmikoa Belabieta Kirol Klubak egunean dituela zerga-betebehar guztiak eta egunean dagoela Gizarte Segurantzarekin.

VIII- Bere estatutuekin bat etorritik, eskatzailearen xedea bat datorrela hitzarmen honen bidez emango den dirulaguntzaren helbururekin.

IX- 467/2023 alkate dekretuari jarraiki, dirulaguntzaren hitzarmena sinatzeko eta dirulaguntza emateko organo eskuduna Alkatea izango da. Zuriketari dagokionean ere, Alkate dekretu bidez ebatziko da.

X - Ibarrako Udalaren 2024ko eta 2025 udal aurrekontuan **12.341.02.481.00 2024 eta 12.341.02.481.00 2025 partidetan agertuko da, 12.000 euroko** zenbatekoarekin dirulaguntza izendun gisa, erakunde eskatzailearekin 2024 – 2025 aldirako konpromisoa betetzeko

XI. 2024ko abenduaren 11n alkate - dekretuaren bitartez 12.000 euroko dirulaguntza emateko hitzarmena sinatzea erabaki zela

XII.- Aipatu dirulaguntza hau Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitara emango da.

Aurreko guztia kontuan hartuta, **DIRULAGUNTZA IZENDUNA** jasotzen duen **HITZARMEN** hau formalizatzen dute bi aldeek, klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

Lehena.- Xedea.

Hitzarmen honen xedea da Belabieta Gimnasia Erritmikoa Kirol Klubari **12.000 euroko dirulaguntza** izenduna ematea 2024-2025 denboraldirako, bere jarduerak garatu eta gauzatzearen ondoriozko gastuak finantzatzen laguntzeko, eta hurrengo klausuletan aurreikusitako dirulaguntza izendunari aplikatu beharreko baldintzak eta konpromisoak ezartzea.

Bigarrena.- Diruz lagunduko diren jarduerak.

Hitzarmen honen eremuan honako jarduera hauek sartzen dira:

1. Adin eta kategoria desberdinetako txapelketak eta topaketak antolatzeke eta horietan parte hartzeke.
2. Sustapenerako jarduerak eta kurtso amaierako jaialdia.
3. Oinarrizko taldeen kontrolak antolatzea



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA



4. Prestakuntza eta formakuntza monitore eta entrenatzaileentzat
5. Klubaren jarduerak gauzatzeko ezinbestekoak direnak
6. Kudeaketaren eta komunikazioaren modernizazio prozesuak hobetzeko
7. Bestelako programa sozialak egiteko, hala nola inklusioa, berdintasuna edota euskara

Hirugarrena.- Dirulaguntzaren zenbatekoa

2024-2025 denboraldirako dirulaguntzaren zenbatekoa **12.000 eurokoa** izango da
Honako aurrekontu-partida hauei egotziko zaie dirulaguntza:

- **1 12.341.02.481.00 2024 (2.097,56 €)**
- **1 12.341.02.481.00 2025 (9.902,44 €)**

Laugarrena.- Ordaintzeko prozedura

Dirulaguntzaren ordainketa egingo da, oro har, dirulaguntzaren onuradunak justifikazioa aurkeztu eta organo eskudunak onartu ondoren, beti ere jarduerarengatik eskumenak dituen departamentuak aldeko txostena egin ondoren.

Gimnasia Erritmikoa Belabieta Kirol Klubak HIRU zatitan jasoko du dirulaguntza:

- **Lehen zatia: % 17,48 (2.097,56 €)**, Alkateak dekretu bidez onartu eta hitzarmen hau sinatu ondoren egingo da lehen ordainketa
- **Bigarren zatia: % 67,52 (8.102,44 €)**, 2025eko martxoan ordainduko da
- **Hirugarren zatia: % 15 (1.800 €)** dirulaguntzaren xedea, proiektua eta/edo jarduerak gauzatu direla egiaztatuta eta dagozkion gastuen fakturak aurkeztu eta onartu ondoren egingo da azken ordainketa, alkate-dekretu bidez.

Kitapena 2025eko irailaren 30a baino lehen aurkeztu beharko da.

Ordainketak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalari jakinaraziko zaizkio ordaindu eta hurrengo hilabetea bukatu aurretik.

Ibarra Udalak aurretik emandako dirulaguntzen justifikazio dokumentazio osoa aurkeztu beharko da beste dirulaguntza berri batean parte hartu ahal izateko.

Entitate onuradunak aurkeztu duen diruz lagundu beharreko jardueraren aurrekontua, edo hari aurkeztu ondoren egindako aldaketak, erreferentzia gisa erabiliko dira dirulaguntzaren zenbatekoaren azken zehaztapena egiteko, zenbateko hori proiektu edo jardueraren azken kostuaren portzentaje bat bezala kalkulatu da eta inoiz ezingo du emandako zenbatekoa gainditu. Kasu horretan, Ibarra udalak egindako balizko finantzazioaren soberakina kalkulatu da ekarpen horrek kostu osoaren aldean duen portzentajea erreferentzia gisa harturik.

Bosgarrena. - Bateragarritasuna beste laguntza batzuekin



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA



Dirulaguntza hau bateragarri izango da helburu bereko beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio edo entitate publiko edo pribatuetatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik datozenak, kalterik egin gabe honekin batera dauden diren beste dirulaguntzak erregulatzeko araudiak horri buruz agindu dezakeena.

Gerta daitezkeen aldi bereko finantzaketa-kasuak honako baldintza hauek bete beharra daukate:

a) Emandako dirulaguntzaren zenbatekoak ezin du inola ere gainditu, beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako proiektu edo jardueraren kostua.

Muga hori betetzen dela egiaztatzeko, egindako gastu osoa justifikatu behar da eta justifikatzeko kontuak jaso behar du diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste sarrera edo dirulaguntzen zerrenda zehatz bat, zenbatekoak eta beren jatorria adierazita daudela.

b) Finantzazioan soberakin bat gertatuko balitz proiektu edo jardueraren kostuarekiko, onuradunak itzuli egin beharko luke, berandutza-intereseekin batera, dagokion justifikazioari ordainketa-gutunak erantsita. Soberakina itzuliko zaie dirulaguntzak eman dituzten entitateei, entitate horietako bakoitzak emandako dirulaguntzen proportzioan.

Hala ere, baldin eta Ibarra udala bada finantzaketa-soberakinaz ohartu dena, exijituko du soberakinaren zenbateko osoa itzultzeko, berak emandako dirulaguntzaren mugaraino.

Dirulaguntzak elkarrekin bateraezinak izateak ez du galaraziko biak eskatzea, bai, ordea, biak batera jasotzea.

Seigarrena.- Indarraldia.

Hitzarmen honek **2024ko irailaren 1etik 2025eko abuztuaren 31ra** arte izango ditu ondorioak.—Emandako dirulaguntza behar bezala erabili dela justifikatu behar zaio Kirol departamentuari, Ibarra udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorrak III. Kapituluaren xedatutakoaren arabera

Zazpigarrena.- Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.

Dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat hartzen dira, indarrean dagoen legeriaren eta Ibarra udalaren Ordenantza Orokorraren aurreikuspenen esparruaren barruan, baldintza hauek betetzen dituztenak: batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat etortzea; deialdian, hitzarmenean edo emakida-ebazpenean ezarritako epearen barruan egitea; beren eskuraketa-balioa merkaturako balioa baino handiagoa ez izatea; eta, deialdian, hitzarmenean edo ebazpenean espresuki kontrakoa xedatu ezean, justifikatzeko epea bukatu aurretik egiaz ordaintzea.

Bakar-bakarrik onartuko dira dirulaguntza eman edo hitzarmena onartutako urtearen barruan sortzen diren gastuak.



Dirulaguntza jaso dezakeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada kontratu publikoen gaineko legerian kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak baino, pertsona onuradunak gutxienez hiru hornitzaileen eskaintzak eskatu beharko ditu. Hori ez da beharrezkoa izango baldin eta, dirulaguntza jaso dezaketen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ondasun edo zerbitzuok egin, eman edo hornitzen dituen hainbeste entitaterik ez badago, edo gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin bada. Alderdi horiek ziurtasun osoz justifikatu beharko dira.

Aurkeztutako eskaintzak aurkeztu behar dira edo justifikazioan edo, hala badagokio, dirulaguntzarako eskabidean. Proposamen ekonomikorik onena aukeratzeko ez denean, espresuki justifikatu beharko dira, memoria baten bidez, erabili diren irizpideak.

Zortzigarrena.- Dirulaguntzaren justifikazioa.

Dirulaguntza emateko egintzan aurreikusitako baldintza eta helburuak betetzearen eta lortzearen justifikazioa egingo da DLOaren 30. artikuluan, DLOaren Araudian eta Ibarako Udalaren III kapituluaren dirulaguntzen Ordenantza Orokorren aurreikusita dagoenaren arabera.

Dirulaguntza justifikatuko da «**justifikatzeko kontua ordainagiriak aurkeztuta**» izeneko modalitateaz, oro har, honako dokumentazio hau duela:

- a) **Jarduera-memoria bat**, dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzeko. Memoria horretan adieraziko da zein jarduera egin diren eta zein emaitza lortu diren, eta, ahal den neurrian, datu guztiak sexuen arabera banatuta aurkeztuko dira.
- b) **Egindako jardueren kostua** justifikatzeko 1. eranskina behar den bezala betea.

Bederatzigarrena.- Dirulaguntzen justifikazioa aurkezteko epea.

Dirulaguntzen justifikazioa aurkezteko epea izango da hilabete bat, jarduera gauzatzeko epea bukatzen denetik kontatuta, eta gehienez 2025eko irailaren 30 arte

Hamargarrena.- Diruz lagundutako jardueraren publizitatea.

Komunikazioa eta publizitate euskarriak: karteldegietan, sare sozialetan, web orrian, ikus-entzunezkoetan eta, oro har, komunikaziorako erabiltzen diren edozein euskarrietan txertatu beharko da Ibarako Udalaren logoa edo irudia, baita aipatzea udalak diruz lagundutako jardura dela

Ekipazioak: Dirulaguntzaren onuradunek Ibarako Udalaren armarrria edo irudia eman beharko da kirolarien kirol-ekipazioetan espazio berezi eta erraz ikusteko moduko batean.

Dirulaguntza jasotzen duen erakundeak konpromisoa hartzen du Ibarako Udalak beharrezkotzat eta interesgarritzat jotako gizarte, hezkuntza, kultura eta jolas-ekitaldietara joan eta bertan parte hartzeko.

Hamaikagarrena.- Euskararen erabileraren normalizazioa



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA



Ibarrako Udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko, klubak ematen dituen ahozko informazioak, idatzizkoak eta publizitateak (telefono deiak, bozgorailuak, irratiak, abisuak, kartelak, oharrak, sare sozialak, web orriak...) euskaraz egingo dira. Elebitan egiten badira, euskara izango du lehentasuna eta gaztelania baino portzentaje handiagoan.

Udalarekin izango den harremana dirulaguntza eskaerak, informazioa, bilerak etab, euskaraz izango du lehentasuna.

Ibarrako Udalak Euskararen erabilera normalizatzeko udal ordenantzan onartuta dituen irizpideak bete beharko dira

Familiekiko edozein komunikazio motatan euskara lehenetsiko da eta gaztelania baino nabarmenagoa

Hamabigarrena.- BERDINTASUNA, GENERO-INDARKERIA, SEXU-JAZARPENA eta HAURREN ETA GAZTEEN AURKAKO BIOLENTZIAK

- a) Ez dira onartuko klubeko kideen artean genero-indarkeria, sexu-indarkeria sustatzen eta/edo horien protagonista diren jarrerak edo mezuak egotea, ezta lgtbi+ kolektiboko pertsonen eskubideen eta duintasunaren aurkakoak izatea ere. Halakorik balego, klubak horiek desagerrarazteko neurri egokiak hartu beharko ditu. Bestela, hitzarmen hau deuseztatzeko arrazoia izan daiteke, horrek eduki ditzakeen ondorio ekonomikoekin
- b) Genero ikuspegia kontuan hartuko da dirulaguntzaren justifikazio txostenean: datu bilketan, estatistikan eta abarretan.
- c) Berdintasunaren, aniztasunaren, inklusioaren, rol eta genero identitate aniztasunaren balio positiboak dituzten mezuak sustatzen ahaleginak egingo dira
- **Adin txikikoen babesa**
 - a) Haurrak eta Nerabeak indarkeria fisikoa, emozionala eta psikikoaren aurka babesteko protokoloa aurkeztu behar da udaletxean.

Hamahirugarrena.- Iraungitzea.

Hitzarmen hau iraungiko da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 51. artikuluan zehaztutako kasuetan.

Hamalagarrena.- Kontrol eta jarraipena.

Hitzarmen honen finantza kontrola pertsona edo entitate onuradunei egingo zaie, edo hala badagokio, erakunde kolaboratzaileei. Finantza kontrola Ibarrako Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorraren 48. eta 49. artikuluetan xedatutakoari jarraiki egingo da.

Hitzarmen honen onuradunak behartuta daude kontrol finantzarioa egiten duten funtzionarioei lankidetzara eskaintzera eta horretarako eskatzen zaizkien agiriak eta beharrezko informazioa eskuratuko diete.

Jarraipen eta kontrol prozesu horretan hitzarmen honetako baldintzak ez direla betetzen ikusten bada, beharrezko neurriak hartuko dira diru itzulketa egin dadin, eta kasua bada, emandako diru-laguntza kobratzeko eskubidea galduko da.



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA



Hamabosgarrena.- Emandako diru-laguntzaren itzulketa

Hitzarmen honek arautzen dituen dirulaguntza lotuta dago Ibarra Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorren itzulketa araubideari.

Diru-laguntza jasotzen duen pertsona fisiko edo juridikoaren aldetik hitzarmen honetan zehaztutako klausuletakoren bat ez betetzeak dirulaguntza iraungiaraztea edo gutxitzea ekarriko du. Dena den, Ibarra Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorren 46. artikulua eta harekin bat datorren gainontzeko araudiak xedatzen dutena aplikatuko da.

Jarduera bertan behera geratuko balitz, edo eskaera jaso zenetik guztiz ezberdina baldin bada, jasotako dirulaguntza itzuli egin beharko da.

Hamaseigarrena.- Lan eta zerga legeria.

Diruz lagundutako elkarteak bete beharko du, bere jardura gauzatzean, indarrean dagoen legedian ezarritakoa, bereziki zergei, lan-harremanei, Gizarte Segurantzari edo horren aplikaziotik eratortzen den guztiari dagokienean.

Hamazazpigarrena.- Izaera administratiboa.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du. Beraz, bere klausulek eta bere kasuan aplikatzekoa den legediak arautzen dute.

Hemezortzigarrena.- Erantzukizunpeko adierazpena.

Ibarra Udalaren dirulaguntzen Ordenantza Orokorren 6 artikuluan xedatutakoaren arabera, DLOren 13.2 artikuluan ezarritako onuradun izateko debekuetan erortzen ez delako egiaztapena egingo da notario baten edo funtzionario publiko baten aurreko erantzukizunpeko adierazpen baten bidez.

Hemeretzigarrena.- Gainerako legeria.

Hitzarmen honetan araututa ez dagoenean, bete beharko da honako lege-arau hauetan xedatutakoa: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa eta berau garatzeko Erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa; eta Ibarra Udalaren dirulaguntzen Ordenantza Orokorra.

Hogeigarrena.- Izaera pertsonaleko datuak.

Izaera pertsonaleko datuak arautzen duen legeriak agintzen duenari jarraituta, bi aldeek konpromiso hartzen dute indarrean dagoen legerian xedatutakoa, aplikatu daitekeen guztian, beteko dutela.

Hogeita batgarrena.- Baimentzea.



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA



Entitate onuradunak espresuki ematen dio baimena Ibarra Udalari, edozein momentutan eta edozein Administrazio edo Erakunde Publikotatik zuzenean eskura ditzan hitzarmen honen bitartez eskatutako dirulaguntza lortzeko ezinbesteko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko behar diren datuak.

Hogeita bigarrena.- Gardentasun Ataria.

Hitzarmenaren testua argitaratuko da Gardentasun atarian

Eta ados daudela adierazteko eta sinatzaileei dagozkien ahalmenak baliatuta, bi alderdiek hitzarmen hau sinatu dute, bi aletan, goiburuan adierazitako tokian eta datan

ALKATEA

Gimnasia Erritmikoa Belabieta Kirol Klubak

Laura Navascues

Igor Zapiain Lizarribar

Laura Navascues Angulo

1. ERANSKINA

JUSTIFIKAZIO EKONOMIKORAKO EREDUA

A) SARREREN JUSTIFIKAZIOA

Azalpena	kopurua
SARRERAK:	
Proiektuaren berezko diru -sarrerak: _____ (Onartu den guztia, ez bakarrik ordaindutakoa)	€
Erakunde pribatuen dirulaguntzak: _____ (Onartu den guztia, ez bakarrik ordaindutakoa)	€
Ibarako Udala dirulaguntzak: (Onartu den guztia, ez bakarrik ordaindutakoa)	€
Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza (Onartu den guztia ez bakarrik ordaindutakoa)	€
Eusko Jaurlaritzaren laguntza (Onartu den guztia, ez bakarrik ordaindutakoa)	€
Beste erakunde publiko baten laguntza _____ (Onartu den guztia, ez bakarrik ordaindutakoa)	€
Beste batzu: _____	€
GUZTIRA SARRERAK	€
SARRERA AURREIKUSPEN HONETATIK ZE KOPURU DAGOEN ORAINDIK JASOTZEKO	€
- Ibarako udala - Gainontzekoak	

B) GASTUEN JUSTIFIKAZIOA

Taula orokorra

Azalpena	kopurua
GASTUAK DENERA, MOTAREN ARABERA	
Pertsonal kontratuak denera	
Asistentziagatiko ordainagiriak denera	
Fakturak denera	
Tiketak erosketak (20 eurotik beherakoak) denera	
Beste administrazioetako erreziboak denera	
Tiketa, elkarteen lokalen erabilerarena	
Kilometrajea denera	
Zeharkako gastuak	



Justifikatutako gastuak zehaztuta

[illegible]

ZEHARKAKO GASTUEN MEMORIA

Jaso bakoitzaren kopurua eta aurreko ataletan ezin sartu izanaren zergatia:

TAULAREN ARGIBIDEAK

Jarduerak eragindako gastuen zerrenda sailkatua betetzerakoan honako datu hauek zehaztu beharko dira:



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA



1. Mota: Agiri mota: Nomina, Asistentzia ordainagiria, Beste administrazioiko erreziboak, Faktura, gastu tiketa (20 euro arte), elkarteko tiketa, edo kilometrajea.
2. Zenbakia: Faktura edo tiketa bada
3. Data: kasu guztietan
4. Igorlea jarri behar da: Faktura, errezibo eta Tiketetan, horiek burutzen dituen, eta Hartzailea jarri behar da nomina eta ordainagirietan, lana edo prestazioa burutu duen pertsona.
5. IFK edo NAN.
6. Kontzeptua: gastuaren objektua
7. BEZ-a: Faktura eta Tike ten kasuan.
8. PFEZa: Nomina, ordainagiri kasuan eta autonomoen fakturetan.
9. €: Dirulaguntza -eskatzaileak ordaindu behar izan duena.
10. Guztira: Kontzeptu guztien batuketa

Aipatutako erakundearen ordezkari legala naizen aldetik, honako hau

Adierazten dut:

Eranskin honetan jasotako datuak egiazkoak direla, bertan jasotako ordainketak eginda daudela, deialdi honetako 13. Artikuluak ezarritako betebeharrak betetzen ditudala eta, nolanahi ere, prest nagoela Ibarra Udalaren esku jartzeko jasotako dirulaguntza behar bezala erabili dela egiaztatzeko beharrezkoak diren agiri guztiak.


Arduradunaren sinadura eta erakundearen zigilua :

Izena Abizenak..... Laura Navascues Angulo

Lekua eta data: **Ibarra**.....n, 202(e)ko **4. abendura**....ren12an

LEGE-OHARRA

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorritik, deialdi honen tramitazioan jasotako datu pertsonalak, parte-hartzaileek erabiltzea eta argitaratzea baimenduko dituztenak, fitxategi batean jasoko dira. Fitxategi honen helburua deialdi honetako dirulaguntzak eta deialdi honekin zer ikusia duten beste edozein prozedura edo espediente administratiboa kudeatzea izango da, eta baita deialdi honetara aurkeztu diren pertsonen deialdiaren garapenari buruz informatzea ere. Fitxategi honen arduraduna Ibarra Udal da. Lege horretan adierazitako sarbide, zuzenketa, ezabatze eta aurkatze eskubideak erabiltzeko Kultura Sailera jo beharko da, helbide honetara: Euskal Herria kalea 44, 20400-Ibarra.



Ordainketak bideratzeko datuak

100



3.-ERANSKINA

ASISTENTZIAGATIKO ORDAINAGIRI EREDUA. KIROL EKIMENAK

ELKARTE A:		IFZ:	
---------------	--	------	--

IZENA :		NA N:	
------------	--	----------	--

DATA	JARDUERA	TOKIA	KOPURUA

DENERA HILEKO / KURTSOKO	
--------------------------	--

Elkartearen sinadura

Jasotzailearen sinadura



ERANSKINA 4

ASISTENTZIAGATIKO ORDAINAGIRI EREDU OROKORRA EKIMENAK

ELKARTEA:		IFZ:	
-----------	--	------	--

IZENA:		NAN:	
--------	--	------	--

DATA	JARDUERA	TOKIA	KOPURU GORDINA	% 15 PFEZ	JASOTAKOA ZUZENEAN

DENERA HILEKO / KURTSOKO	
--------------------------	--

Elkartearen sinadura

Jasotzailearen sinadura

ERANSKINA 5

GARRAIO GASTUEN JUSTIFIKAZIO EREDUA

ELKARTEA:		IFZ:	
-----------	--	------	--

IZENA:		NAN:	
--------	--	------	--

DATA	JARDUERA	TOKIA	KM	KM 0,19 €	KOPURUA
				X 0,19 €	
				X 0,19 €	
				X 0,19 €	
				X 0,19 €	
				X 0,19 €	
				X 0,19 €	
				X 0,19 €	

DATA	JARDUERA	TOKIA	PEAJEA/ PARKINA	KOPURUA

DENERA HILEKO / KURTSOKO	
---------------------------------	--

Elkartearen sinadura

Jasotzailearen sinadura



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024WDI10010-ritmika hitzarmena 24 25/ritmika hitzarmena 24 25 ()